

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: **GATAZKA BELIKOAN DAUDEN EDO KATASTROFE NATURALAK EDO ANTZEKO ARRAZOIAK IZANDAKO HERRIALDEETATIK DATOZEN ADINGABEAK ALDI BATERAKO HARTZEKO PROGRAMA. 2023. URTEA**

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

Oinarri hauen xedea da gatazka belikoan dauden edo katastrofe naturalak edo antzeko arrazoiak izandako herrialdeetatik datozen adingabeak aldi baterako hartzea.

Harrera Beasaingo familietan edo Gipuzkoako egoitza, aterpetxe, kanpamentu eta abarretan izan daiteke, EAEko elkarte edo bestelako erakundeen bitartez.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

-Familia-harrera kasuetan: Beasainen legezko eta benetako bizilekua duen edozein familiak.

-Gipuzkoako egoitza, aterpetxe, udaleku e.a.-harrera kasuetan: nortasun juridikoa izan eta irabazi asmorik ez duten eta deialdi honen xedearekin bat etorrita jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko gobernuz kanpoko nortasun juridikodun edozein antolakuntzak edo erakundeak izan dezake bere egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra (justifikatu egin beharko da) EAEn baldin badu. Ordezkaritza iraunkorraren kasuan, bere gain hartzen du eskaera aurkezteko erantzukizun zuzena, eta EAEn duen bulegoan proiektuaren kontabilitatea, dokumentazioa eta kudeaketa mantentzeko konpromisoa hartzen du.

Deialdi honetara biltzeko espresuki baztertuta gelditzen dira Estatuaren, Autonomi Administrazioen, Foru Aldundien eta banketxeen mendeko erakundeak nahiz zerbitzuak.

Aurkezten diren erakundeek ezingo dute diru-laguntzarik jaso baldin eta Beasaingo Udalarekin egunera ez badaude (zor ekonomikoak, beste deialdietan onartutako diru-laguntzen justifikazio falta...).

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Beasaingo Udalak honako gastuak ordaindu ahal izango ditu:

-Bidaiak, arropa, oinetakoak, farmazia gastuak, betaurrekoak, dentista gastuak e.a.

Adingabeen harrera Beasaingo familietan lehenetsiko da; beraz, helburu horrekin, behar den diru-kopurua gordeko da Beasaingo familia harreragileen artean banatzeko. Familietan hartzeagatik gehienez 1.500€ emango dira.

Beasaingo familia harreragileen aurkeztutako eta onartutako eskaeren ondorioz aurreikusitako kreditua agortzen ez bada, soberakina elkarteen edo bestelako entitateen eskaeren iritsiera-ordenaren arabera banatuko da, 1.500€ harreraren hartutako adingabe bakoitzeko, kreditua agortu arte.

4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskabideak aurkezteko epea zenbatzen hasiko da 2023-04-30 arte.

Eskaerak, telematikoki aurkeztu beharko dira Beasaingo Udalaren www.beasain.eus helbidean.

Udalak ikusiko balu, eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago direla edo osatu gabeak direla, 10 egun naturaleko epea emango dio falta direnak aurkezteko edo osatu gabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu gabe baleude, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.